2026



HERRI KIROLAK


GUKA

URTEURRENA / 1976-2026

DOMUSA TEKNIK

Klimatizazio eraginkorra, zure etxeko erosotasunerako











4-10
Aizarnazabalgo Idi Proben Elkarteak 20 urte

12-14
Plazatik kanpo
Julen Alberdi 'Txikia IV'.a

16-20
Klik!
Arroabeko eta Aizarnazabalgo emakumeen arteko giza proba desafioa

22-26
Harri jasotzea eta emakumeak

28-30
Oroitzapenen plaza
Jexux Goenaga

PUBLIRREPORTAJEA

21
Itea psikoteknikoa

Argitaratzailea:
Urolako Komunikazio Taldea

Kolaboratzaileak:
Anitz Urkizu
Aiora Arriola

Helbidea:
Soreasu 1
AZPEITIA
943-81 38 41
943-89 00 17
urolakosta@ukt.eus

GUKA
ZERBITZUAK




EKAIN
BETIKO SAGARDO BERRIA
EKOLOGIKOA
Euskal sagar barietate ekologikoekin egindako sagardoa,
sagardotegiko menua, euskal sukaldaritza.
Erreserba bidez, 943-14 80 33
Txuleta, arraina... egur ikatz parrilla.
Ibañarrieta auzoa, Astotxiki bidea, 4 (20740 Zestoa)



Aizarnazabalen idi probek sustraiak ondo errotuta dituzte. AIPE (Aizarnazabalgo Idi Proben Elkartea) sortu aurretik ere antolatzen zituzten probak herrian, idi demetarako zaletasuna handia baitzen. Duela hogei urte, ordea, ohitura horri eusteko eta antolaketa bermatzeko pausoa eman zuten hainbat herritarrek, elkartea sortuta. Ordutik, lan handia egin dute idi probak sustatzen eta tradizioari bizirik eusten. Inaxio Mari Etxabek eta Unai Egañak gertutik ezagutu dute ibilbide hori, eta argi dute zaletasunak eta herritarren babesak bultzatzen dituztela aurrera.

HOGEI URTE IDI PROBEN
HARRIARI TIRAKA

AIZARNAZABAL
udala



2006ko udaberrian, Aizarnazabalgo idi probak arriskuan zeuden. Ordura arte, udalak antolatzen zituen probak, eta enpresa batek hartzen zituen gastuak bere gain. Horretarako, zortzi edo bederatzi laguneko taldea aritzen zen lanean, soldatapean. Enpresak porrot egin zuenean, ordea, idi demak antolatzeari utzi zion, eta udalak ere probak bertan behera uztea erabaki zuen, aurreko urtean galerak izan zituelako.

Inaxio Mari Etxabek ondo gogoan du garai hura. Probarik ez zela antolatuko jakin zuenean, udalera jo zuen egoeraren berri izateko. Orduan, astebeteko epea eskatu zuen behin betiko erabakia hartu aurretik, probak manten zitezkeela sinetsita. Bi seme zituen, 24 eta 20 urtekoak, eta haiek ez ezik, inguruko beste hainbat lagun ere prest agertu ziren laguntzeko.

"Idi probak antolatzeko taldea sortuko genuela esan nien udal ordezkariei", gogoratu du Etxabek. Horrela jarri zuten martxan Aizarnazabalgo Idi Proben Elkartea. Dirua lortzeko, zozketak



antolatzen zituzten; besteak beste, janariz eta edariz betetako eskorga zozkatzen zuten. "Hura ikustean, jendea buru-belarri hasten zen txartelak erosten; batek hamar euro, besteak hogei... Ikaragarria izaten zen!", azaldu du Etxabek.

Lanaren emaitzak berehala nabaritu ziren. Elkartea martxan jarri eta gauzak ondo zihoazela ikusita, udalari laguntza ekonomikoa eskatu zioten, eta urtean 1.200 euro jasotzen hasi ziren. Horrek egonkortasuna eman zien, eta, bizpahiru urteren buruan, urte amaierako afaria antolatzeko aukera ere izan zuten. Gaur egun, elkarteko kideek egiten duten lanaren ordain bakarra da afari hori, lagunartean eta umore onean ospatzen dutena.

Etxabe bezala, Unai Egaña ere hasieratik aritu da taldean. Hark txikitatik ezagutzen ditu idi probak, aitonak zaletasun handia baitzuen, eta herrian idi demak egiten zirela gogoratzen du. Garai hartan, idiak baserriko lanetarako erabiltzeaz gain, probetarako ere baliatzen zituzten, eta izen handiko idiak eta baserriak zeuden Aizarnazabalen.

Egañak 20 urte inguru zituen elkartera batu zenean. Lan egitea, parranda egitea eta proba egunetan elkarteari laguntzea ziren haren egunerokoaren parte. Antolakuntzan ardura nagusia, ordea, Etxabek eta kide helduagoek zuten. "Guk ezkutuko lana egiten genuen", dio Egañak. Horrez gain, izapide administratiboak egiteko aholkularitza eskaini zien pertsona batek, elkartea sortzeko beharrezko paperen inguruko ezagutza handirik ez baitzuten.

Urteek aurrera egin ahala, arduren banaketa ere aldatuz joan da. Hasieran esperientzia handiena zutenek egiten zuten lan gehiena; pixkanaka, gazteenek ardura handiagoak hartu dituzte. Egañaren esanetan, talde batek ondo funtzionatzeko, kide guztiek jarri behar dute beren alea, nahiz eta beti egon ohi diren antolakuntzako lan nagusiez arduratzen diren bizpahiru lagun.

Berrikuntzak

Hogei urte hauetan, AIPEk bere jarduna zabaldu du, eta hasierako antolaketa eredutik harago joan da. Lehen, kintopeko idi probak antolatzen zituzten batez ere; gero, uztarri motzeko txapelketa ere antolatzen hasi ziren. Egañaren arabera, elkarteak dirua sobran zuela ikusita hartu zuten erabakia; izan ere, irabazi asmorik gabeko elkartea da, eta diru hori probetara bideratzea iruditu zitzaien egokiena.

Gaur egun, Aizarnazabal da uztarri motzeko txapelketa egiten den Euskal Herriko udalerri bakarra, partaideak idi bakarrarekin lehiatzen diren modalitatean. Udalak babesa ematen die txapelketa horri eta kintopeko probei, sari gisa baliatzen dituzten mantak, oroigarriak eta dirua emanez.

Azken lau urteetan, gainera, pisu neurtuko asto probak antolatu dituzte. Egañak azaldu





duenez, modalitate horretako probak Bizkaian egiten dituzte batez ere, 400 kilotik gorako idiekin, eta Gipuzkoako astoak txikiagoak izan ohi dira: 300 kilo ingurukoak. Astozale gutxi egon arren, inguruko zaleei aukera eman nahi izan diete, eta horregatik ekin diote proba horiek antolatzeari.

Asto nahiz idi probak antolatzeak, ordea, gastu handiak ekartzen ditu. 2017an, esaterako, hamazazpi idi parek parte hartu zuten proba batean, eta txapelketa bi egunetan banatu behar izan zuten. Sariez gain, federazioaren gastuak eta gainerako parte hartzaileei emandako laguntzak ere ordaindu behar dituzte. Horregatik, zozketak egiten jarraitzen dute dirua biltzeko. Lehen eskorga edo izozkailua zozkatzen bazuten ere, gaur egun otarrea zozkatzen dute. Herriko saltokien laguntza ere eskertzen dute.

Aizarnazabalgo probalekua herriko plazan dago, aire zabalean, eta horrek baldintzatzen du egutegia. Eguraldi ona eginez gero, ikusle asko biltzen dira; txarra eginez gero, ordea, egoera aldatu egiten da. Horregatik egiten dituzte urteko bi hitzordu nagusiak uda inguruan: uztarri motzeko txapelketa maiatzean eta kintopeko proba uztailean.

Elkartearen hogei urteko ibilbidean, oroitzapen bereziak ere pilatu dituzte. Egañak, esaterako, bere familiaren idiekin parte hartu zuen urtea du gogoan. Aitonari omenaldi txiki bat egin nahi zion horrela, eta Altuna baserriko idiak berriro plazara ateratzea erabaki zuen. Izan ere, aitona Espainiako txapelduna izana zen, eta Egañak sentitzen zuen baserriaren izenak probetan jarraitu behar zuela.

Horretarako, entrenatzen hasi zen, lanetik 22:00 aldera irten eta afaldu gabe idiak ateraz. Garai hartan bi ume txiki zituen, eta haiek ere berarekin eramaten zituen entrenamenduetara: bat motxilan eta bestea manta gainean. Ahaleginak, ordea, merezi izan zuen. Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen, eta uztarri motzean ere bi manta



eskuratu zituen. "Han amaitu zen nire zikloa, baina barruan nuen harra itzaltzea lortu nuen", azaldu du.

Etxabek ere une berezia bizi izan zuen joan zen urriaren 4an, elkartearen urteurrena ospatzeko antolatutako idi proba erakustaldian. Herritar ugari bildu ziren plazan, giro ederrean. Errenteriako (Gipuzkoa) Matxainen, Oiartzungo (Gipuzkoa) Garaiarren eta Aizarnazabalgo Etxaberen idi pareek neurtu zituzten indarrak. Matxainenek egin zituzten plaza gehien, 52 guztira; Etxaberen idiek 50 egin zituzten, eta Garaiarrenek 47.

Erakustaldiaren barruan, AIPEko kideek Etxabe omendu zuten elkartea sortzeko eta urte hauetan egindako lanagatik. Besteak beste, Egañak bertsoa abestu zion plazan. Etxabek ez zuen omenaldiaren berri aurrez; semeak proban zegoela esan zion bertsoa abestuko ziotela, baina berak ez zuen ezer espero. "Zur eta lur gelditu nintzen", gogoratu du. Oso gustura hartu zuen aitortza.



Egañarentzat, Etxaberi egindako omenaldia "guztiz merezitakoa" izan zen. "Etxabegatik izan ez balitz, elkartea ez zatekeen existituko. Bera izan zen busti zena, taldea bildu eta osatu zuena". Haren esanetan, elkartearen sorreran Etxabek hartutako ekimenak ahalbidetu du hogei urteko ibilbidea.

Etorkizuneko zalantzak

Orain arte egindako bidearekin pozik egon arren, Egañak ez du etorkizuna erraza ikusten. Idi probak ikustera edo lagunarteko afariaren ondoren plazara joaten den jendea badago, baina antolakuntzan lan egiteko prest daudenak gero eta gutxiago dira. "Zaila da animatzea mundu hau barrutik edo gertutik bizi ez baduzu", azaldu du.

Laguntza puntuala emateko prest daudenak lortzea erraza izan daiteke, baina elkarteko lanari jarraikortasuna emateko konpromisoa hartzea beste kontu bat da. Egañaren ustez, gero eta zailagoa da boluntario aritzeko prest dagoen jendea aurkitzea, eta horrek zalantzak sortzen dizkio probek





izango duten etorkizunaz galdetzean.

Arazo ekonomikoa ere hor dago. Idiak haztea eta probarako prestatzea urteetako inbertsioa da, eta emaitzak ez dira ziurtatuta egoten. 2 urteko txahalak ekartzen dira, baina 7 edo 8 urte bete arte ez da jakiten plazan emaitza onak emango dituzten. Urteetako lanaren eta gastuaren ondoren ere, baliteke espero zen emaitza ez lortzea. Zaletasunak bultzatzen ditu jabeak aurrera, baina baldintzak gero eta zailagoak direla uste du Egañak.

Azken urteetako gaixotasunek eta beste hainbat oztopok ere ez dute lagundu. Dermatosi nodular kutsakorraren ondorioz, ganadua denbora luzez etxean mantendu behar izan dute zenbaitek; horrez gain, laguntzak urriak direla eta pentsuaren prezioak gora egin duela nabarmendu du. Egoera horretan, gero eta zailagoa da idi proben munduari eustea.

Egañak uste du proben munduak amaiera izango duela noizbait, nahiz eta ez dakien zortzi, hamar edo hamabost urte barru izango den. Gaur egun, oraindik badira gurasoekin edo senideen artean zaletasunari eusten dioten familiak, baina talde txikiak dira, elkarri lagunduz aurrera egiten dutenak. Gainera, probetan lanean jarraitzen duten gehienak 60 urtetik gorakoak direla dio.

Zailtasunak zailtasun, AIPEko kideek ez dute amore emateko asmorik. Egañaren arabera, hogei urtean egindako lanaren balorazioa positiboa da: elkarteak zorrik gabe jarraitzen du, eta idizaleak gustura joaten dira Aizarnazabalera. Antolakuntzan lan egiteak zer dakarren ezagutzen ez dutenen kritikak ere jasotzen dituztela onartu du, baina pozik daude egindako bidearekin eta lortutakoarekin.


Etxabek, berriz, herri kiroletarako zaletasunari eusten dio oraindik. Idi probak ez ezik, zaldi eta asto probak ere gustuko ditu, txikitatik izan baitu mundu horrekiko interesa. Ahal duen bitartean lanean jarraitzeko asmoa du.

Etorkizuna ziurgabea izan arren, Egañak argi dauka zer baldintzatan jarraituko duten lanean: idi jabeak eta ikusleak dauden bitartean, probak antolatzen segituko dute. Herritarren eta zaleen babesa sentitzen dute, eta horri eustea ezinbestekoa da haien ustez.

Hogei urte igaro dira Aizarnazabalgo idi probak bertan behera gera ez zitezen hainbat lagunek elkartea sortzea erabaki zutenetik. Ordutik, lan boluntarioak, dirua biltzeko ahaleginak eta zaletasun partekatuak eutsi diote plazako jardunari. Orain, erronka ez da soilik idiak harriari tiraka mantentzea, baizik eta tradizio horri eusteko behar den lana egiteko prest dagoen jendea aurkitzea. •

talleres AiA

- Multimarkak
- Klimatizazioa
- Elektrizitatea
- Balaztak
- Injekzioa
- Mantentze lanak
- Mekanika orokorra
- Pneumatikoak
- IAT zerbitzua: IAT aurrekoa, autoa eraman eta jaso...
- Mekanika azkarra
- Diagnosia
- Ihes kanalizazioak





Bizkaia kalea, 69 · ZARAUTZ
943-83 46 18 · 639 51 80 24 · electricidadaia@gmail.com



IBON ERRAZU

DISEINU LANAK
GUKAZERBITZUAK
www.gukazerbitzuak.eus

GUREA
TABERNA AZKOITIA
Aingeru kalea, 34, AZKOITIA • 943-85 36 39



AIZKORAREN OIHARTZUNETIK HARAGO

Julen Alberdi 'Txikia IV'.a (Azkoitia, 1991) aizkorarekin lotzen du jendeak, baina aizkorakaden artean bada beste Julen bat ere: mendizalea eta bizikletan buelta ederrak egitea nahiz lagunekin lasai egotea gustuko dituena. Familiatik datorkio aizkorarako zaletasuna, etxean piztu zitzaion lehen txinparta; gaur egun, ordea, bere bidea egiten ari da, familiako laugarren 'Txikia' izatearen ondarea soinean daramala.







Julen Alberdiren kasuan, aizkora ez zen kanpotik etorritako zaletasuna izan; etxean izan ditu erreferenteak, eta, txikitatik, bere kasa aritzen zen egurra mozten. Ez zen entrenamendu planik, ez txapelketarako presarik: jolasa zen, besterik gabe. Inork bultzatu gabe, berak bilatzen zuen aizkora hartzeko tartea.

Aitonak hasi zuen saga; apustu baten ondorioz ezarri zioten *Txikia* ezizena. Gaztetan, ia bi metroko gizon baten aurka lehiatu zen. Aitona ez zen bereziki txikia, baina aurkariaren ondoan hala ematen zuen; hortik ezizena. Besteari, kontrara, *Luxia* deitu zioten. Denborarekin, izen hura familiako ikur bilakatu da, eta Julen Alberdi laugarren belaunaldia da.

2009an, oraindik 18 urte bete gabe zituela, kuadrillen arteko apustu moduko batean zapaldu zuen lehenbizikoz plaza. Ondoren, erakustaldi batzuk etorri ziren. Baina aizkorak bere bizitzan beste leku bat hartu zuen gerora. Ikasten ari zenean, ez zion denbora askorik eskaintzen; afizioz aritzen zen, etxean tarteka. Lehiatzeko gogoa, ordea, bazuen barruan.

23 urte ingururekin hasi zen aizkorari beste begi batzuekin begiratzen. Entrenatzeko modua aldatu zuen, bere buruari helburu zehatzago bat jarrita: txapelketetan lehiatzea. 2019an iritsi zitzaion lehen poz handietako bat: Gipuzkoako Aizkolari Txapelketa irabazi zuen. "Momentu bereziena aurreneko txapel garrantzitsua irabazi nuenekoa izan zen", dio. Garaipenekin batera, ordea, bestelako egunak ere izan ohi dira. Batzuetan, plazan emaitzak ez dira norberak espero bezalakoak; beste batzuetan, entrenatzeko ahalegin guztia egin arren, gorputzak ez du nahi bezala erantzuten. Eta hori ere eramaten ikasi behar da.

Kolpe bakoitzaren atzean

Kanpotik begiratuta, aizkolarien lana erraz laburbildu liteke: aizkora hartu, egurra jarri eta jo. Baina Alberdik ondo daki kolpe bakoitzaren atzean zer dagoen. Indarra, erresistentzia, potentzia eta teknika behar dira, bai, baina horiek lantzeko prozesua ez da plazan ikusten. Egurra lortu eta ekarri behar da, entrenamendurako prestatu, aizkorak erosi eta zaindu. "Inbertsio aldetik garestia da, eta asko bizi behar den kirola", azaldu du.

Entrenamendua bera ere ez da aizkora eskuan hartzen den unean hasten. Aurretik, egurra jarri behar da; ondoren, dena

jaso eta garbitu. Horri gehitu behar zaizkio indar saioak, lan aerobikoa eta erresistentzia lantzeko entrenamenduak. Eguna joan eta eguna etorri, errutinak ez du atseden handirik ematen. Astean sei egunez entrenatzen du Alberdik, eta lanean ematen dituen orduak gehitu behar zaizkio horri. Eta, kirolari profesional baten moduan prestatu nahi badu ere, aizkoratik bizitzea ez da aukera erreala.

"Guk profesionalak bezala entrenatu nahi izaten dugu, baina ez gara hortik bizi", dio. Hor dago aizkolarien paradoxa: goi mailan lehiatzeko, dedikazio handia behar da, baina bizimodua ateratzeko beste lan bat ere egin behar izaten dute. Alberdi ingeniari mekanikoa da, eta lana, entrenamenduak eta bizitza pertsonala uztartu behar ditu.

Aizkorak asko ematen diola dio, baina ez du ezkutatzen sakrifizioa ere eskatzen duela. "Denboraldiak luzeak dira, eta aurrealdeko postuak eskuratzeko lehian nabilenean, are gehiago zentratzen naiz". Helburuak argi ditu: Euskal Herriko Txapelketako lehen mailan lehiatzen diren aizkolarien artean, finalera iristea, eta, lortuz gero, finalean lan ona egitea.

Aizkoratik harago

Aizkora da Alberdiren egunerokoaren ardatza, baina horrek ez du esan nahi aizkolaria izatea denik bere nortasunaren osagai bakarra. Orokorrean, kirolzalea da, eta mendia zein bizikleta ditu gustukoen. Ez ditu soilik aizkorarako prestatzeko baliatzen: bere kabuz ere gustatzen zaio mendian ibiltzea edo lagunekin bizikletan buelta bat egitea. Etxetik gertu ibiltzen da normalean, Hirukurutzeta eta Karakate inguruan, besteak beste.

Mendia eta bizikleta, beraz, ez dira aizkoraren aurkako ihesbide hutsa. Prestakuntzaren parte ere badira, sasoiari eusteko eta erresistentzia lantzeko balio diotelako. Baina kirolak badu beste alde bat ere: gozamenarena. Tarteka, entrenamenduaren helburua alde batera utzi eta bideaz disfrutatzen saiatzen da. "Libre naizenean, lagunen batekin bizikletan buelta eder bat egitea asko gustatzen zait", azaldu du.

Beste kirolen batean hasi beharko balu, bizikletak erakartzen du bereziki. Badaki ez dela edonorentzako moduko diziplina eta sakrifizio handia eskatzen duela, baina horrek ez dio atzera eginarazten. Arrauna ere probatuko luke, inoiz egin ez duen arren. Kirol gogorra eta dedikazio handikoa dela dio, aizkorarekin zenbait antzekotasun dituen horietakoa. Ez da harritzekoa; Alberdiri erronka fisikoak gustatzen zaizkio, baita ahaleginaren ondoren datorren sentsazioa ere.

Dena den, ez du beti mugimenduan egon beharrik. Batzuetan, planik onena geldirik egotea dela aitortu du: lagunekin egotea, etxean lasai ibiltzea edo paseo bat ematea. Aizkolariaren gorputzak ere errekuperatu egin behar du, eta nekeak ez du beti kolpe batez alde egiten. "Askotan pilatutako nekea izaten da, eta errekuperatzea kostatu egiten da", dio.

Bizimoduaren parte

Alberdiren bizitzan aizkorak leku handia hartzen du, eta ez du kontrakoa esaten. Hala ere, haren bizimodua ez da txapelketa egunetako plaza eta egur multzoen artean bakarrik gertatzen. Bada ingeniari mekaniko bat, bizikletan kilometroak egitea gustuko duena; mendizale bat, inguruko tontorretara joateko ohitura duena; eta pertsona bat, lagunekin egoteko tartea bilatzen duena. Ez dira aizkoratik aparteko mundu arrotzak, haren bizimoduaren beste pieza batzuk baizik.

Agian, horixe da *Txikia IV.*a ezagutzeko modurik egokiena: ez aizkora albo batera utzita, baizik eta aizkoraren inguruan eraiki duen bizitza ulertuta. Familiatik jasotako izenak bidea markatu dio, baina bere kabuz egin behar izan du aurrera, entrenamenduz entrenamendu, egurrez egur. Eta plazatik kanpo, indarrak neurtzeko beste modu batzuk ere baditu: bizikletan aldapa gora egitea, mendian buelta bat ematea edo, besterik gabe, etxean lasai geratzea.

Azken finean, aizkorak eskatzen dion dedikazioa ez da txikia. Baina Alberdik badaki indarra ez dela beti egurra kolpatzeko erabiltzen. Batzuetan, gelditzeko ere behar da; beste batzuetan, bizikleta hartu eta bideari ekiteko. Aizkoraren hotsa isiltzen denean ere, badu zer egina *Txikia*-k. ■



EMAKUMEEN ARTEKO ERRONKA
FESTA BIHURTUTA

Arroabeko Txikitasunean Handi festaren barruan, giza proba erronka jokatu zuten Aizarnazabalgo eta Arroabeko emakume hainbatek urriaren 17an. 500 kilo inguruko harriarekin egindako hitzorduan, Aizarnazabalgo partaideak nagusitu ziren: 60 plaza osatu zituzten hogei minututan. Arroabekoek, berriz, 57 plaza egin zituzten denbora horretan. Ikusle ugari bildu zen ikuskizunaren bueltan, eta giro ederra sortu zen plazan.

Azterketa biomekanikoak • Oin-zola pertsonalizatuak • Silikonazko ortesiak neurrira
• Azkazal eta gogorguneak • Papilomak
• Oin diabetikoen prebentzioa • Laserra

Oinak

PODOLOGIA ZENTROA

Urdaneta kalea 8, ZARAUTZ
Hitzordua 943-53 27 24



Irabazleen poza
Ahaleginaren ondoren iritsi zen sari nagusia: garaipena. Aizarnazabalgo taldea nagusitu zen Arroabeko Txikitasunean Handi festaren barruan jokatutako emakumeen arteko giza proba historikoan. Talde irabazleak 60 plaza osatu zituen hogei minututan; Arroabekoak, berriz, 57 plaza egin zituen denbora tarte berean. Irabazleek gogotik ospatu zuten garaipena, taldearen indarraren eta konpromisoaren emaitza izan baitzen lorpena.

Aurreko egunak
Desafioaren bezperetan, Arroabeko eta Aizarnazabalgo emakumeak plazan erabiliko zuten harriaren inguruan elkartu ziren. Jai giroan eta elkarrekiko errespetuan oinarrituta sortutako erronkak balio izan du herri kiroletan emakumeek ere beren tokia badutela erakusteko; izan ere, emakumeak plazaren erdigunera atera ziren. "Iaz txinga erronka jokatu zen Arroabean, Txikitasunean Handi jaiaren barruan, eta parranda giroan aipatu genuen hurrengo urtean geuk egingo genuela zerbait. Normalean, halakoetan gizonak ateratzen dira plazara, baina gure kasuan, festa batzordean emakumeak aritzen gara antolaketa lanetan, atzeko lanetan", azaldu du Arroabeko Lorea Ilundainek.



Epaileen lana
Urriaren 17an, probaren antolatzaileak eta epaileak 17:00etan elkartu ziren, bi taldeetako zein plazaratuko zen aurrena ebazteko zozketa egiteko. Epaile lanetan Andoni Zubiaurre *Gorixo* aritu zen, eta Aitor Billabier eta Denis Erkiziaren laguntza izan zuen. Epaileek zehatz-mehatz kontrolatu zituzten talde bakoitzak hogei minutuko mugaren barruan egindako birak eta distantziak.





Ikusleen erantzun paregabea
Arroabeko plaza txiki gelditu zen giza proba hitzordua bertatik bertara ikustera joandako jendetza tarteko. Giro beroa izan zen plazaren bueltan, eta erronka ikustera joandako herritarrek babes handia eskaini zieten arnesak jantzita ahalegin ikusgarria egin zuten hamasei kirolariei.



Arroabeko taldea lanean

Zozketak hala erabakita, Arroabeko taldea izan zen plazara ateratzen lehena. Arnesak jantzita, burdinazko egitura bat lotu zuten soinera kirolariek, eta Itziarko plazatik eramandako 500 kilo inguruko harria mugitzeari ekin zioten. Eneritz Diez, Maren Lertxundi, Jaione Aristondo, Lorea Ilundain, Ane Guridi, Miren Lazkano, Amets Torres eta Naia Urbieta aritu ziren lanean, eta azken itzuliak korrika eginda, 57 plaza osatu zituzten.







Aizarnazabalgo taldea lanean
Ondoren iritsi zen Aizarnazabalgo kirolarien txanda. Alaine Bereziartua, Ainhoa Etxabe, Ainara Sagarna, Janire Garate, Nerea Saldias, Laura Urdin, Igone Larrañaga eta Leire Zubizarreta aritu ziren harri berari tiraka. Haiek Arroabekoen marka hobetzea lortu zuten, hogei minututan 60 plaza egin baitzituzten.



Sufrimendua eta nekea
Hogei minutuko ahalegin fisiko bortitzaren ondoren, kirolarien aurpegietan nekea, sufrimendua eta aldi berean egindako lanaren gozamena ikus zitezkeen. Lana amaitutakoan, lehiakideek elkar besarkatu zuten, garaipenaz gain emakumeen arteko elkarlana eta herri kirolen festa nagusitu baitziren. •



TRAMITEAK ERRAZTEA ETA BEZEROARI GERTUKO ARRETA ESKAINTZEA, ITEA PSIKOTEKNIKOAREN LEHENTASUNAK

Gidabaimena berritzeko edo bestelako baimenak eskuratzeko azterketa medikuak egiten dituzte Zarauzko Itea Psikoteknikoa zentroan. Gertutasuna, arreta pertsonalizatua eta tramiteak erraztea dituzte lanaren oinarri.

Gidabaimena berritzea, oposizio baterako mediku azterketa egitea edo hainbat baimen eskuratzea. Zarauzko Itea psikoteknikoan prozesu horiek ahalik eta errazenak eta erosoenak izatea dute helburu. Jone Iriartek azaldu duenez, beren lana bezeroei prozesu osoan laguntzea eta tramiteak erraztea da.

Zentroan osasun ziurtagiriak eskaini eta mediku azterketak egiten dituzte, hala nola gidabaimena lortzeko, segurtasun pribaturako, oposizioetarako nahiz kirolerako, armak erabiltzeko, nautikarako, animalia arriskutsuekin jarduteko eta beste hainbat jardueratarako. Enpresentzako mediku ziurtagiriak ere eskaintzen dituzte.

Gidabaimena lortzeko beharrezkoa den azterketa psikoteknikoan, ikusmena, entzumena, koordinazioa eta erreflexuak aztertzen dituzte, gidatzeko gaitasun fisikoak eta psikikoak egokiak direla egiaztatzeko. Prozesuak, batez beste, hogei minutu irauten du, eta Nortasun Agiria eta dagokion baimena eraman behar dira. Agirietarako beharrezkoak diren argazkiak Itea zentroan ateratzen dituzte doan.

Azterketek urduritasuna sor dezaketela jakitun, Iriartek lasaitasun mezua helarazi die bezeroei: "Gure nahia beraien berbera da: prozesua ahalik eta errazen egitea, beti bezeroa lehenetsiz".

Hasieratik amaierara

Gertutasuna eta arreta pertsonalizatua dira Itea psikoteknikoaren ezaugarri nagusietako bi. Azterketak egiteaz gain, bezeroei tramiteak kudeatzen laguntzen diete, denbora eta ahalegina aurrezteko helburuz. Gidabaimena berritzeko, prozesu osoa, esaterako, telematikoki egiten dute, bezeroek Trafiko Zuzendaritzara joan beharrik izan ez dezaten. Beste baimen batzuen kasuan ere, dagokien erakundeekin jartzen dira harremanetan, eta hitzorduak hartzen laguntzen dute.

Itea Psikoteknikoa

Ordubete doan,
Munoako aparkalekuan



Bixkonde kalea 15, behea (Zarautz)
943-12 27 25 | 690 28 71 04
admin@iteapsikoteknikoa.com | **www.iteapsikoteknikoa.com**

Ordutegia:
Astelehenak, asteazkenak eta ostiralak 10:00-13:00
Astearteak eta ostegunak 17:00-20:00


301K
301K


KELEN
ITURGINTZA - GASA ETA BEROKUNTZA - KLIMATIZAZIOA - AEROTERMIA
ARANA KALEA 5, Azpeitia 631 94 73 05

Harri jasotzea tradizioari estuki lotutako kirola da, eta urte luzez gizonezkoen kiroltzat hartu izan da. Azken urteotan, ordea, emakumeek geroz eta presentzia handiagoa dute plazetan, eta pixkanaka beren lekua egiten ari dira. Horren erakusgarri dira Olaia Esnaola eta Lierni Osa harri jasotzaileak. Ibilbide desberdinak izan arren, biek ondo ezagutzen dituzte kirol horretan emakume izateak dakartzan erronkak, baita azken urteotan izandako aldaketek egunerokoan duten eragina ere. Aurrerapauso handiak eman diren arren, parekidetasuna lortzeko bidean oraindik egiteko asko dagoela esan dute.

EMAKUMEAK GEROZ ETA INDAR HANDIAGOZ ARI DIRA PLAZETARA IRTETEN





Lierni Osa erdian, urriaren 18an, Euskal Herriko Harri Jasotze Txapelketa irabazi ostean. UTZITAKOA

Olaia Esnaola (Azpeitia, 2007) 14 urte zituela hasi zen harria jasotzen. Ez zen hori bere lehen aukera izan, aurretik aizkoran aritzeko asmoa baitzuen. Aitak, ordea, harria jasotzera animatu zuen, eta ordutik Joseba Ostolaza Harri Eskolan dabil. Hala ere, lehen lehiaketan parte hartu ahal izateko, 15 urte bete arte itxaron behar izan zuen, hori baita gutxieneko adina.

Plazara irtetea ez zitzaion erraza egin hasieran: "Ez nintzen plaza emakume sentitzen",



azaldu du Esnaolak, ez baitzekien zer zen plazan lehiatzea. Ikusleen iritziek eta harria jasotzeko moduak urduritasuna eragiten zioten. Gaur egun ere urduri jartzen da, baina kezka bestelakoa da: zer marka egingo duen eta lehiaketan nola arituko den pentsatzen du orain.

Lierni Osaren (Zarautz, 1995) ibilbidea bestelakoa da. Helduaroan hasi zen harri jasotzen, crossfitean aritu ondoren. Andoni Iruretagoiena *Izeta VI.a* laguna du, eta hark animatu zuen pausoa ematera; ordutik Izeta Harri Eskolan dabil. Garai hartan, emakumeentzako txapelketa berri bat sortu zuten, eta horrek eman zion kirol horretan hasteko aukera.

Zarauztarraren ustez, aurretik harri jasotzen aritutako emakumeek egindako lana ezinbestekoa izan da: "Karmele Gisasola, Udane Ostolaza eta beste hainbat hasi zirenean, jendeak ez zuen begi onez ikusten emakumeak plazan aritzea; beraiek ireki digute ondorengoei bidea". Gaur egun, emakumeak plazan normaltasunez ikusten diren arren, aurreiritziak ez direla desagertu adierazi du.

Plazan zurrumurruak

Bai Esnaolak, bai Osak, lekuz kanpoko komentarioak entzun behar izan dituzte. Gazteenak azpimarratu duenez, "kirol hori mutilena" dela esan izan diote. Hala ere, familiaren eta entrenatzailearen babesa oso lagungarria izan zaizkiola adierazi du, baita beste emakume batzuk plazan lehiatzen ikusteak ere: "Emakumeak plazan ikusteak motibazioa ematen dit; bakoitzak eginiko lana kontuan hartzen dugu, eta lehia polita dago gure artean". Neska gehiagok kirol horretan aritzeko aukera dutela ikustea pozgarria iruditzen zaio.

Osak, berriz, gehienetan bere itxuragatik jaso ditu komentario desegokiak. Makillatuta eta azazkalak margotuta joatea gustatzen zaio, eta horrek arreta pizten du lehiaketetan. "Komentario batzuk zuzenean niri egin izan dizkidate, beste batzuk entzutea, berriz, nire gertukoei egokitu zaie". Haren ustez, adineko jendeari arrotzagoa egiten zaio emakumeak lehian ikustea; gazteek, aldiz, "normaltasun osoz" hartzen dute.

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak sarietan ere antzematen dira. Esnaolak argitu duenez, harri handietako txapelketak egokituz joan dira emakumeen parte hartzera, eta uste du lehiaketek "ikusgarritasun handiagoa" dutela orain. Hala ere, sarietan aldeak nabaritu ditu; izan ere, bere esperientziaren arabera, gizonezkoek diru gehiago jaso izan dute.

Zarauztarrak ere hala dio, hasieran gizonen sariak handiagoak zirela. Gaur egun, ordea, federazioak antolatutako lehiaketetan sari berdinak banatzen dituztela azpimarratu du: "Pisu desberdinak jaso arren, denbora aldetik lan berdina egiten dugu guztiok, eta





Esnaola, Harriak harri jasotze txapelketa irabazita. UTZITAKOA

irabaziak berdinak dira", dio. Erakustaldietan, aldiz, sariak ez dira izaten berdinak, bakoitzaren mailaren araberakoak baizik, eta parte hartzearen truke ere diru gehiago edo gutxiago irabazten dute.

Aurretiko lanak

Harri jasotzea, ordea, ez da plazara irten eta indarra eginez harria sorbaldara eramatea soilik. Horren atzean, entrenamendu fisiko handia dago. Hala azaldu du azpeitiarrak: "Harriarekin lanketak egin behar dira, gimnasiora joan behar da eta baita arnasketa kontrolatu ere". Horrtaz gain, entrenamenduetatik kanpo, elikadura zaintzea eta masajistarengana joatea ere komeni dela adierazi du: "Harria jaso ondoren ere zaindu egin behar da".

Osak beste alderdi garrantzitsu bat nabarmendu du: hilekoak entrenamenduetan eta lehiaketetan izan dezakeen eragina. Azaldu duenez, hasieran, bere entrenatzaileak ez zuen ulertzen egoera horretan mina edo indar falta sentitzea zer zen. Urteek aurrera egin ahala, ordea, emakumeen zikloak kirol jardunean duen eraginaz jabetzen joan da. Horregatik, entrenamenduak emakumeen egoera fisikora egokitzea ezinbestekoa dela azpimarratu du.

Etorkizunari begira, Esnaolak oraindik ez du kezka handirik, ikasten ari baita, eta, momentuz, entrenamenduak bere ordutegira moldatzeko modua du. Osaren errealitatea bestelakoa da: "Ama izan nahi badut, kirol hau utzi egin beharko dut, eta alde horretatik, inbidia ematen didate mutilek". Inguruko bi pertsona aita izan direla eta biek kirola normaltasunez jarraitzeko aukera izan dutela nabarmendu du: "Beti esaten dute energia gutxiagorekin daudela, nekatuago, baina harria jasotzen aritzeko aukera ez dute guztiz galdu".

Etorkizunaren ziurgabetasuna

Esnaolak, gorputzak laguntzen dion bitartean, entrenatzen jarraitu nahi du, eta hamar urte barru plazak emakumez beteta ikustea du amets: "Txapelketak gehiago ari dira egokitzen; hala jarraitzea espero dut etorkizunean ere".

Zarauztarrak ere gogorarazi du gaur egun harri jasotze eskola asko daudela inguruan, eta kirola probatzeko lehen baino aukera gehiago daudela: "Lehen, baserrietan entrenatzen zen, eta ez zen batere erraza harri jasotzearekin aurretiko loturarik izan gabe entrenatzen hastea". Esnaolak, berriz, txapelketetan parte hartzea ez dela ezinbestekoa azpimarratu du: "Gustatzen bazaizu, harri jasotzen ibili zaitezke lehiaketetan parte hartu gabe".

Bi belaunaldien esperientziek agerian utzi dute aurrerapauso handiak eman direla, baina oraindik ere badagoela zertan hobetua. Emakumeek plazara ateratzeko aukera izateaz gain, han ikuagarritasuna eta babesa izatea ere funtsezkoak dira. Azken finean, harria jasotzeko indarra eta teknika behar diren bezala, emakumeek bidea egiten jarraitzeko baldintzak ere aldatu egin behar dira. ■



www.mahala.eus

943-67 07 24 - info@mahala.eus



Bertako kultura eta kirola babesten





Txikitatik segan aritu arren, 22 urte inguru zituela ekin zien txapelketei Jexux Goenagak (Errezil, 1979). Urteetako lanaren ondoren, 2017an Europako Txapelketan bigarren sailkatzea lortu zuen, eta hain zuzen ere, huraxe izan zen bere kirol ibilbideko lorpen berezienetakoa.

Jexux Goenaga
Segalari ohia

"IZUGARRIA IZAN ZEN EUROPAKO TXAPELKETAN BIGARREN EGITEA"



Nolatan eta noiz hasi zinen segan? Nork edo zerk piztu zizun kirol horrekiko interesa?
Sega txiki-txikitatik bizi izan dut gertutik. Izan ere, baserrian bizi ginen, eta gurasoak betidanik ikusi izan ditut horretan. Baserri kanpoko belarrak sega makinarekin kentzen ziren, eta makinak harrapatzen ez zituen belarrak segarekin kentzen genituen. Gainera, beti piztu izan du nire arreta segak; betidanik gustatu izan zait, beti sortu izan dit zerbait barruan. Segalariak ikustera txapelketetara eta erakustaldietara joaten hasi nintzen gerora, eta halako hitzorduetan nintzela, sega txapelketaren batean gustura parte hartuko nukeela pentsatzen nuen neure artean.
Eta noiz egin zenuen urratsa?
22 urte inguru nituela hartu nuen erabakia, lagun batzuek animatuta. Poliki-poliki hasi nintzen entrenatzen, eta, gutxira egin nuen jauzi txapelketetara.

Zer gogoratzen duzu lehian aritu zinen urte haiez?
Kirol oso sakrifikatua da sega; berdin dio zer eguraldi dagoen, lanetik irten eta gero entrenatu egin behar baituzu. Gainera, ebaki ahal izateko belarra bilatu egin behar izaten da; eta agian hori da zailena, belarra aurkitzea. Niri, gutxienik, ez zitzaidan erraza egiten astean bizpahiru entrenamendu egiteko belardi egokiak bilatzea, baserritarrek askotan ez zituztelako berenak uzten.
Segalari ibilbidean garaipen eta une gogoangarri ugari biziko zenituen. Zein nabarmenduko zenuke eta zergatik?
Segan aritu nintzen urte haietan lorpen batzuk eskuratu nituen. Euskal Herriko txapela irabazi nuen, nazioarteko modalitatean, eta Euskal Herriko kilokako modalitatean, finalera iritsi nintzen bi aldiz. Baina, agian, bereziena, 2017. urtean Europako txapelketan lortutako bigarren postua izango da. Hura ikaragarria izan zen niretzat.
Errezilen omenaldia egin zizuten Europako Txapelketan lortutako bigarren postuagatik. Zer sentitu zenuen herrikideen aitortza jasotzean? Espero al zenuen halako harrerarik?
Ez nuen inondik inora halakorik espero. Gauza ederra izan zen Suitzara Europako Txapelketan lehiatzera joatea, baina joaterako, txapelketa niretzat handiegia zela pentsatzen nuen. Horregatik izan zen niretzat izugarria bigarren postuan sailkatzea. Txapelketa haren amaiera ere ikaragarria izan zen, etxera itzuli eta herrian harrera jaso bainuen. Ezin dut hitzez azaldu egun hartan sentitutakoa, hunkigarria izan zen oso. Oso polita da herriak zure ibilbidea aitortzen duela ikustea.
Segak lana eta sakrifizioa eskatzen ditu. Nola gogoratzen dituzu prestaketa urte haiek?
Entrenamendu batzuk egin ondoren, modu naturalean





hasi nintzen txapelketetan parte hartzen. Garai hartan maila handia zuten segalari asko zeuden, eta nik, hasiberria izateko, maila nahikoa polita eskaini nuela uste dut. Tartean, bi urtez edo, sega alde batera utzita egon nintzen, baina barruko harra asetu nahian, berriro itzuli nintzen jardunera.

Noiz eta zergatik utzi zenuen sega behin betiko?

Sega uzteko beharra izan nuen. Lanean ari nintzela, ukondoa apurtu nuen, eta entrenamenduak alde batera utzi behar izan nituen. Aldi berean, pandemia iritsi zen, eta entrenamenduak egiten nituen zelaiaren jabeak esnetarako behiak kendu egin zituen. Ondorioz, prestatzeko belarra aurkitzeko arazoak gehitu ziren zerrendara. Horrez gain, familia eta lana ere banituen, eta... Gauza asko tarteko, segarekiko hoztasuna sentitzen hasi nintzen.

Segaren munduarekin lotuta jarraitzen al duzu gaur egun?

Sega lehia jarraitzen dut, eta txapelketak ikustera joaten naiz. Batzuetan inbidia ere izaten dut, sentitu izan dut itzultzeko gogoa, baina ezinezkoa da. Gero eta jende gutxiago aritzen da segan gaur egun, gero eta segalari gutxiago daude. Kirol sakrifikatua da, eta diru asko behar da aurrera egiteko; izan ere, gastu asko sortzen dira, denbora behar da eta lagunduko dizun kuadrilla handia ere behar da inguruan. Dena den, bada gazteekin lan polita egiten ari diren sega eskola bat Gaztelu (Gipuzkoa) inguruan; Zaldibia (Gipuzkoa) inguruko gazte asko aritzen da eskola horretako entrenamenduetan, eta pozgarria da hori.

"Garai hartan maila handiko segalari asko zeuden, eta nik, hasiberria izateko, maila nahikoa polita eskaini nuela uste dut"

Atzera begiratuta, zer esango zenioke segaren munduan murgildu nahi duen gazte bati?

Kontuan hartu beharreko gauzak badirela esango nioke, eta, batik bat, jardun sakrifikatua dela. Dena den, animatu egingo nuke, probatu egin behar izaten baita gustukoa al den jakiteko. Eta noski, behar izanez gero, ahal dudan neurrian gustura lagunduko niokeela esango nioke. Ikasi egin beharko luke, eta horretara ordu batzuk bideratu; izan ere, sega oso kirol teknikoa da eta orduak behar dira teknika ikasteko. Gogoa duenak dena egin dezakeela uste dut. ■

ARIMAR




Pago egurrezko su erregaiak

Denoi gustatzen zaigu su on baten inguruko gozotasuna, baina horretarako kalitatezko egurra behar da. Guk geuk ekoitzitako neurri guztietako egur zati eta zanpatutako txirbil briketak bakarrik banatzen ditugu. Egurraren hezetasun maila egokia ere ezinbestekoa da ondo erreko bada, eta instalakuntza berezien bidez, %20 azpitik uzten dugu Europan eredu diren enpresen gomendioak jarraituz.

943-81 10 41

WWW.ARIMARSUA.COM



LEIHOAK.com
eta toldoak



www.leihoak.com

943-00 22 75 - 619 43 20 79

leihoak@leihoak.com

Leihoen eta toldoen erakusketa

Zelai Ondo, 23 | **ZARAUTZ**